

10 ideia klabe

- 1.- "Ebaluazioa ikaskuntzaren motorra da" zer eta nola irakasten den eta zer eta nola ikasten den horren menpe baitago.
- 2.- "Ebaluazioaren helburu nagusia erregulazioa da" bai ikasleen zailtasunak eta akatsak identifikatzeko, baita irakaskuntza-prozesua ere.
- 3.- "Akatsa baliagarria da", komeni da bere adierazpena akuilatzea (estimulatzea) antzemateko, ulertzeko eta erregulazioa laguntzeko.
- 4.- "Garrantzitsuena: autoebaluatzen ikastea". Horretarako beharrezkoa da ikasleek eskuratzea: ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio irizpideak, pentsamenduaren eta ekintzaren estrategiak planteatutako zereginei erantzuteko.
- 5.- "Ikasgelan guztiek ebaluatzen eta erregulatzen dute", irakasleak eta ikaskideak, baina ebaluaziorik garrantzitsuena ikasleek egiten dutena da.
- 6.- Ebaluazioaren funtzio kalifikatzailea eta aukeratzaileak ere oso garrantzitsuak dira, eta bere emaitzak hein batean menpe daude irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar egiten den ebaluazio-erregulazioa en kalitatean.
- 7.- "Soilik ebaluazio kalifikatzaileak ez du motibatzen". Oro har, ezta ebaluazioa berak ere, ikasturtea errepika araziz ikasleak ez du gehiago ikasteko eta ahalegin tzeko motibatu baldin eta irizpideak eta tresnak ematen zaizkion bere erroreak ulertzeko eta gainditzeko eta bere arrakastak onartzeko.
- 8.- "Ebaluazio-tresnak dibertsifikatzea nahitaezkoa da". Edozein ikaskuntzak helburu desberdinak kontenplaten dituenetz, beharrezkoa da informazioaren bilketarako tresna desberdinak eta askotarikoak izatea. Eta datuak aztertu eta erregulazioa bultzatzeko estrategiek ikasleen autonomiari lagundu behar diote.
- 9.- "Ikasleen ikasketen kanpoko ebaluazioa erabilgarria izan daiteke irakaskuntza orientatzeko". Baina horretarako garrantzitsua da tresnek eta aplikatutako ebaluazio-metodoek ikasgela-praktika berritzaileak bultzatzea.
- 10.- "Ebaluatzea irakaskuntza hobetzeko beharrezko baldintza da". Ebaluazioak aplikatutako curriculum-aren kalitatea ebaluatzeko informazioa eman behar du, irakaskuntzaren praktika eta mantentzen duen teoria hobetzeko.